

BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA



KIROLAK: OÑATIKO DUATLOIKO SAILKAPENA /9
KULTURA: 'JAKINGARRIAK' BERRIA /13

Goienka

EGUAZTENA • 2002ko martxoaren 27a • III. urtea • 59. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Aste Santua etxean
igaroko dituztenek
badituzte aukerak

DEBAGOIENA

Lan-istripuen aurkako
elkarretaratzea egin dute
sindikatu nagusiek /3

IÑAKI LASAGABASTER

*"Geroago eta jende gehiago
arduratzen da ekologiaz. Ez, ordea,
elite politikoa eta ekonomikoa" /8*

ERDIALDEAN, E-DEBAGOIENA EGITASMOAREN GAINEKO GEHIGARRI BEREZIA

DEBAGOIENAREN ETA HIRUGARREN MUNDUAREN ARTEKO LANKIDETZA

Mundukideren truke programa

Hilabete izan dira geurean, eta joan den astean utzi gintuzten. Brasildik, Kolonbiatik, Mexikotik, Paraguaitik, Txiletik, Ginea

Bissautik, Ekuatore Gineatik eta Zimbabwetik etorri ziren, otsail bukaeran, hamahiru lagun. Ez zuten Debagoiena ezagutzen, bai-

na orain, euren herrietara bueltan direnean, maiz gogoratuko dituzte hemen ikasi eta ikusi dituzten esperientziak. /2-3

Aurrekontuak onartu dituzte Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan

Udal aurrekontuak onartu dituzte Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan. Arrasateko Udalak 27.043.450,44 euroko aurrekontua izango du. Kultura etxe berrirako 3,8 milioi euroko inbertsioa aurrez ikusi du. Udal aurrekontuak EAren, EBren eta Batasunaren aldeko botoekin onartu dituzte Mondragoen. Bergaran

17.584.131 euroko aurrekontua onartu dute EAJk, EAK eta Batasunak. Kirolgune berrirako 600.000 euroko inbertsioa aurrez ikusi dute. Eta Antzuolako Udalak 2.300.735 euroko aurrekontua onartu du, Batasunaren, EAJren eta EAren aldeko botoekin. Inbertsioetara, 850.720 euro bideratuko ditu Antzuolako Udalak. /5

BERGARA

62 urteko gizonezko bat hil da auto batek harrapatuta

Arrasatera bidean zihoan Opel Corsa auto batek 62 urteko J.M.A.S. gizonezko bergararra harrapatu, eta hil egin zen astelehenean Bergarako bariantean. Istripua 22:15 aldera gertatu zen, Candyrako irteera inguruan. /3

ARAMAIO

Euskara ikasi gura dutenak etxean hartzeko deia

Udan euskara ikastera datorren jendea hartzeko gertu dauden familia euskaldunak behar dira. Ikasleen egonaldia, gutxienez, hilabetekoak izango dira, eta etxe bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango dute hileko. /5



ANDER GILLENEA

Teknologia berriak, denen eskura

Astelehenean aurkeztu zuten Leintz Gatzagan e-debagoiena egitasmoa. Informazioaren Gizartearen etorrera azkartu, teknologia berriak ibarreko herritar guztien eskura ipini eta Debagoiengan zuntz optikoa jartzea ahalbidetuko duen proiektu aitzindaria da. Erakunde publiko eta pribatuak dira bultzatzaileak (Eusko Jaurlaritzak, Mankomunitatea, MCC, MU, Goiena eta Euskaltel) eta 18 milioi euro inbertituko dituzte datozen urteotan (3.000 milioi Pta). Egitasmoa ibarreko alkate guztiek sinatu dute. /4

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Mundukide

Debagoienaren eta Hirugarren Munduaren arteko lankidetzaz

LEIRE KORTABARRIA

Hilabete izan dira geurean, eta joan den astean utzi gintuzten. Brasildik, Kolonbiatik, Mexikotik, Paraguitik, Txiletik, Ginea Bissautik, Ekuatore Gineatik eta Zimbabwetik etorri ziren otsail bukaeran hamahiru lagun dira. Ez zuten ez elkar, ez Debagoieneko inor ezagutzen, baina orain, euren herrietara bueltan direnean, ziur maiz gogoratuko dituztela hemen ezagutu dituzten lagunak eta ikasi eta ikusi dituzten esperientziak. Helburu horiekin, hain zuzen, etorri ziren-eta. Mundukide Fundazioak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak ahalbidetutako truke programako parte hartzaileez ari gara.

AURTENGOEN IRITZIAK

Debagoienara etortzen diren lagunek badituzte hainbat antzekotasun. Guztiak Hirugarren Munduko herrialdeetatik etortzen dira. Gainera, gehienak kooperatibetako edo mugimendu kooperatibistarekin lotutako erakundeetako arduradunak dira. Mondragon Kooperatiba Korporazioa behatzea izaten dute hel-

AURTENGO TALDEA Hainbat elkartetik etorritako lagunak

Eredu kooperatibista era askotako erakundetan aplikatu daiteke. Horren frogaraz, aurturaren hainbat direnen jatorria: gehienak nekazari arloko elkarteetakoak (Movimiento sin Tierra, San Ignacio Misiones), garapen taldeetakoak eta sindikatuetako langileak ziren.

buru, ikasitakoa euren lanean aplikatu ahal izateko.

Hala ere, bakoitzak bere ikasgaiak ateratzen ditu. Luisa Gladys Montenegro paraguaiarra honek dio: "Esperientzia kooperatiboak baino gehiago, hemengok duzuen kudeatze eta antolaketza ahalmenak erakarri ninduen. Kooperatibak zelan jaio ziren, horixe ikasi gura nuen nik, Paraguairako kooperatibako langileon bizi baldintzak hobetzeko". Idealista ere badira, Juan de la Cruz Mora eta Carlos Otxoa kolonbiarrak bezala: "Kooperatibaren sortzaileen helburu nagusia ez zen ondasun materiala, baizik eta baloredun komunitatea sortzea, berdintasun eta gizatasun handiagoa izango zuena, eta uste dugu filosofia horrek arrakasta izan zuela eta esperta daitezkeela", diote eurek.

KULTURARI ERRESPECTUA

Batzuen ustez, ordea, Euskal Herrian baldintza egokiak egon dira kooperatibismoa sustatzeko: kultura da arrakastaren gakoa, Marcelo Pedro d'Almeida ginearraren ustez: "Euskaldunok kulturari errespetua diotuzue, eta hori izan da, hain zuzen, hemengo elkartasunaren oinarria".

PRIMERAKO IRAKASLEAK Euren herrietako egoeraren berriemaile

Truke Programako parte hartzaileak euren herrietako errealitatearen primerako 'irakasle' bihurtzen dira, eta horretarako, ikasleekin eta nagusiekin mahai-inguruak, hitzaldiak, seminarioak... egiten dituzte hemen dauden bitartean.



Joan den egunean, martxoaren 21ean, despedida eguna izan zuten Mundukideok. Egun horretan ateratako argazkia duzue.

HELBURUAK Batak bestearen esperientziatik ikasi

Mundukide Fundazioaren egitasmo horren xedea da lankidetzan oinarritutako harremanak bultzatzea; hemengo kooperatibaren esperientzia jakinaraztea eta, era berean, Mondragon Unibertsitateak garapen komunitarioaren gainean gehiago ikastea.

GUZTIEN INPLIKAZIOA Hainbat taldek hartzen dute parte

HUHEZIZ eta Mundukidez gain, beste hainbat taldek laguntzen dute egitasmoa aurrera ateratzera: besteak beste, ibarreko kultura, emakume eta euskara elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak, baita Euskal Herri osoko aisialdi taldeek ere.

IAZKOEN BALORAZIOA Kooperatibez gain, beste ikasgai asko

Joan diren bi urteotan izan zirenek oroitzapen bikaina gordetzen dute hemen pasatutako hilabeteaz. Kooperatibaren gainean ikasitakoaz gain, gehien baloratu zutena giza harremanak, ikaskuntzaren kalitatea, gizatasun sentimendua eta elkartasuna izan ziren.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexezko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak.

SANDRA CARRASCO / CANDREPON KOOPERATIBAKO ARDURADUNA

“Hemen ikasi dudana lankideei erakusteko ilusioarekin noa”

Txiletik etorri zen gurera Sandra Carrasco. Txileko hainbat eskualdetan funtzionatzen duen Candrepon kooperatibako arduradunetarikoa bat dugu Sandra.

Zer da Candrepon kooperatiba elkarte?

Emakumeek osatutako kooperatiba elkarte bat da. 1999. urtean sortu genuen. Gehienbat, emakume maputxeek osatzen dute, baina badira beste jatorria batzuetako bazkideak ere. Txileko bi komuna edo eskualdetan egiten dugu lan. Lau ekoizpen mota ditugu: antzarak, loreak, fruituak, eta artisautza.

Zein helburu betetzeko sortu zen Candrepon?

Gure helburua zen, eta da, oraindik ere elkarteko bazkide diren emakumeak euren komuna edo eskualdeetako garapeneko subjektu parte hartzaile bihurtzea, eta gero eta pisu handiagoa izatea hango bizitza sozial eta ekonomikoan.

Zergatik erabaki zenuen Truke Programan parte hartzea?

Gure egunetik eguneko lana ondo doa, baina antolakuntzan



“Hemen duzuen ezagutza aberatsa ikastera etorri naiz; espero dut neuk ere zerbait utzi izana”

pixka bat motelago gabilta. Nire irrika zen kooperatibismoaren sorrera miatzea, sortzaileak nortzuk izan ziren eta zelan hasi ziren ikastea, horrela, Txilera buelta-

tzerakoan, gure kooperatibako antolakuntza arazoei irtenbidea eman ahal izateko. Hemen ikusi dudana oso baliagarria izan da. Nik neuk gogo handia neukan etortzeko, baina nire lankideek ere itxaropen handiak zituzten bidaia honetan. Orain, ikasi dudana eurei erakusteko ilusioarekin noa bueltan Txilera.

Nik ikusi dudana da Debagoienean ezagutza aberatsa duzuela, eta horixe ikastera etorri naiz, eta espero dut guk ere zuei zerbait utzi edo erakutsi izana.

Zein da maputxeen kulturaren egoera?

Batez ere, Txileko hegoaldean bizi dira maputxe gehienak. Peguentxe izenekoak ere han bizi dira. Kultura horiek indarberrituz doaz gaur egun, eta horrek euskal kulturaren egoera gogorarazten dit; izan ere, aditu dudanez, euskarak, jatorrian, ez zuen idatzitako tradizioirik, eta berdin gertatzen zen maputxearekin; baina orain, zerbitzu eta erakundeek gero eta gehiago erabiltzen dute maputxea, iragarrietan-eta. Bestalde, euren kultura, artisautza... ere sustatzen ari dira.

RICHARD MANHYIA / CREDO ELKARTEKO ZUZENDARIETAKO BAT

“Kooperatibismoak arazoak konpontzeko modu propioa du”

Zimbabwe euskaldun batek sortutako Credo elkarteko langileetarikoa bat da Richard Manhyia gaztea. Aurten Afrikatik etorri diren hiru lagunetarikoa bat dugu Richard.


Zelan sortu zen Credo elkarte?

Zimbabwe, gazteak oso egoera txarrean daude. Askok ez dute zer jan; beste askok ezin izan dute sekula eskolara joan. Horrek, sarritan, lapurretara edo gaizkile bihurtzea eramaten ditu. Zimbabwe misiolari zebilen Iruñeko abade batek, hori ikusita, Credo egitasmoa sortu zuen. Orain, lau kooperatibak osatzen dute Credo elkarte.

Zer lan egiten du Credok?

Gazteei lanbide bat irakasten die, eta euren bizitza aurrera eramaten laguntzen die. Hainbat lan egiten dituzte: zurgintza, erakuntza, nekazaritza, adreiluen produkzioa... Ni eraikuntza arloko zuzendaria naiz. Bi helburu ditu Credok: bata, gazteei prestakuntza eskaintzea; eta bestea, ekonomikoki laguntzea.

Zein helburu zenituen hona etortzerakoan?



“Herri kapitalista batetik etorrira eta Sozialismoa ikasita, kooperatibismoa ikertu gura nuen”

Credo ez da MCC taldearen moduko kooperatiba bat, askoz apalagoa da. Hemengo esperientzia arrakastatsu horien inguruko gehiago ikasi gura nuen, gure

kooperatiba indartzeko. Ni herri kapitalista batetik nator; baina Kuban ere ikasi izan dut, eta ideia sozialistak nireganatu egin ditut; orduan, kooperatibismoa ikertzea interesatzen zitzaidan. Eta nire ondorioa da arazoak konpontzeko modu propioa eta desberdina duela.

Zimbabweko gobernuak ez du gazteen alde ezer egiten?

Gure gobernu Erresuma Batuekin etengabeko liskarretan dabil, eta politikoak ez dira barne arazoez arduratzen, ez dute horretarako astirik hartzen. Credo eta horrelako erakundeak arduratzen dira gazteez, ez gobernuak.

Orain bazoaz Zimbabwe... Zelako esperientzia izan duzu gure artean?

Oso aberasgarria izan da. Izan ere, hona etortzerakoan, ikaste-ko asmoz nentorren, baina baita neure ideiak hemengoekin banatzeko asmoz ere. Mondragon Unibertsitateko ikasle askori jakinarazi dizkiet neure ideiak eta esperientzia; mintegiak, hitzaldiak... egin ditut; eta gazteekin ez ezik, erretiratuekin eta nagusiekin ere berba egin dut. Elkarrengandik ikasi egin dugula uste dut.

BAILARAN LABUR

62 urteko gizonetako bat hil da Bergarako saihebidetan, auto batek harrapatuta

Arrasatera bidean zihoan Opel Corsa auto batek 62 urteko J.M.A.S. gizonetako bergararra harrapatu eta hil egin zuen astelehenean Bergarako bariantean. Istripua 22:15 aldera gertatu zen Bergarako bariantean, Candy lantegirako irteeraren inguruan. Antza denez, kaminoa pasatzera zihoanean autoak harrapatu eta bertan hil zen. Anbulantziak bertaratu zirenerako hilda zegoen, eta gorpua Donostiako Polloera eroan zuten. /ENEKO AZKARATE

Arrasatetik Bergarara arteko auto-ilarak, errepidearen konponketa lanak direla-eta

Astelehenean, zortzi kilometroko auto-ilarak izan ziren ia egun osoan, errepidea konpontzeko lanak zirela-eta. Automobil, kamioi eta autobus gidariak pazientzia handiarekin ibili behar izan ziren, auto-ilarak ohikoak baino luzeagoak izan ziren-eta. Ilara horiek sortu ziren Arrasateko irteeran errepidearen zorua konpontzeko lanak egiten ari zirela-eta. /E.A.

10.000 lagun elkartu ziren Oñatitik Arantzazurako bakearen aldeko ibilaldian


“Udaberrian loreak bezala, bakea ere denon laguntzarekin lore dadila” eskatu zuen Juan Maria Uriarte gotzainak Oñatitik Arantzazurako ibilaldian. 10.000 lagun batu ziren zapatuan ibilaldian. /E.A.



Saihebidetako lan-istripuen aurka

Bergarako saihebidetako berri lanean zebilela hil zen gaztearen heriotza salatuz, elkarretaratzea egin zuten astelehenean saihebidetako obretatik oso gertu, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek deituta. Joan den eguaztenean hil zen hogeita bost urteko errenteriarra, Zubiaurreko saihebidetan lanean ziharduela. Saihebidetako lanetan erabiltzen duten auto bat konpontzen ari zela, deskarga elektriko bat jaso eta hil egin zen. Abenduan, 22 urteko beste gazte bat hil zen, hura ere saihebidetako lanetan. /MONIKA BELASTEGI

“RESIDENCIAL SALOU GREEN”



IZARRAITZ INMOBILIARIA

HIPER EROSKI ZENTROA

Tel./Faxa : 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com

ARRASATE

Zapatuetan egun osoan zabalik



GREEN MAR I eta GREEN MAR II

- Bi eta hiru logela
- Egongela
- Sukalde independentea
- Komuna
- Terraza zabala
- Atikoak
- Aparkalekua eta trastelekua
- Zona komunitarioa igerilekuarekin

Teknologia berriak debagoiendar guztiengana heltzeko, 18 milioi euro

Jaurlaritzak, Mankomunitateak, MCCk, MUK, Goienak eta Euskaltelek sustatutako 'e-debagoiena' egitasmoa aurkeztu dute

ENEKO AZKARATE

Astelehenean aurkeztu zuten, Leintz Gatzagako Gatz Museoan e-debagoiena egitasmoa. Teknologia berriak herritar guztien eskura jartzea du helburu egitasmo horrek. Horretarako, 18 milioi euro inbertitu eta zuntz optikoa Debagoienera zabalduko dute datozen bi urteotan.

Erakunde publiko eta pribatuak dira egitasmo aitzindari horren bultzatzaileak: Eusko Jaurlaritza, Debagoienerako Mankomunitatea, MCC, Mondragon Unibertsitatea, Euskaltel eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak. Helburua, garbia: Debagoienerako herritar guztiak Informazioaren Gizartean sartzea. Bi urtean zortzi egitasmo beteko dituzte enpresen, administrazioaren, osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren edo informazio eta zerbitzuen alorretan. Eta ibar osoan banda zabala sartuko dute.

Egitasmoa astelehenean aurkeztu zuten, Leintz Gatzagan, eta hantxe elkartu ziren proiektua bultzatu duten erakunde guztietako ordezkariak eta ibarreko alkate guztiak. Han izan zen baita Jabier Retegi ere, egitasmoaren bultzatzaile nagusietako bat.



Jabier Retegik esan zuenez, gure eskualdearen errealitateari eutsi eta garapen bideak urratu egin behar dira, teknologia berrien aukerak baliatuta.

ARGAZKIAK: ANDER GILLENIA



Dantzariak harrera egin zien han batutakoei, Gatz Museoaren aurrean.



Josu Jon Imazek egitasmoaren garrantzia azpimarratu zuen.




Jabier Retegi eta MUKo Guillermo Irazoki, ibarreko alkateak alboan ditzuztela.



Ekitaldiaren amaieran, e-debagoiena egitasmoa sinatu zuten bultzatzaileak.



MCCko buru Jesus Catania eta MUKo Iñazio Oliveri.



Amatiño eta Elgetako alkate Patxi Basauri.

ARAMAIO

Euskara ikasi gura dutenak etxean hartzeko familiak behar dituzte

Udalak jakinarazi duenez, udan euskara ikastera datorren jendea hartzeko gertu dauden familia euskaldunak behar dira. Ikasleen egonaldiak, gutxienez, hilabetekoak izango dira, eta etxe bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango dute hileko. Era berean, ikaslea hartzen duen etxean, gutxienez, lau lagun bizi beharko dira, eta logela bat libre izan beharko dute datorenarendako. Ikaslea hartzearen trukean, familiak 492,83 euro jasoko ditu hileko. Apirilaren 8a baino lehen eman beharko da izena, Udalean. /UBANE MADERA



UBANE MADERA

ARRASATE

2002ko aurrekontu orokorraz gain, udalbatzarrak kultura etxe berria egiteko proiektua onartu du oraingo astean EAren, EBren eta Batasunaren aldeko botoekin

Arrasatek badu 2002rako aurrekontua. Herenegun onartu zuen udalbatzarrak EAren, EBren eta Batasunaren aldeko botoekin eta EAren, PPren eta PSE-EEren kontrakoekin. Guztira, 27.043.450,44 euro izango ditu Udalak aurtengo ekitaldirako; horren barruan sartuta daude Aukearen 1.152.535,08 euro eta Iturbide egoitzaren 1.633.605,97 euro. Era berean, nabarmentzekoa da Zerbitzu batzordeak jasoko duela diru partida handiena.

Aurrekontuekin batera, udalbatzarrak kultura etxe berriaren proiektuari onespina eman zion. Horrela, Udal Liburutegia, umeendako liburutegia, ibarreko erakusketa areto bat eta ikasketa-gune bat izango ditu. 3.868.552,46 euroko inbertsioa aurrez ikusi dute horretarako, eta 24 hilabete lanak egiteko. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

Aurrekontuak onartu zituen udalbatzarrak martxoko bilkuran

2002rako 2.300.735 euroko aurrekontua onartu dute. Horietatik, 850.720 euro inbertsioetara bideratuko ditu Antzuolako Udalak.

EAJ, EA eta Batasuna alderdien aldeko botoekin onartu zituen udalbatzarrak 2002. urterako aurrekontuak. PSE-EEko zinegotzi Juan Benítez izan zen aurrekontuan aurkako botoa eman zuen bakarra. Bestalde, EAJko Jose Angel Zabalok adierazi zuen astebetean bost aurrekontu proposamen jaso dituztela eta hori "fundamenturik ez dagoen" seinale dela. /AINTZANE IRIZAR

BERGARA

Udalak 17.584.131 euroko aurrekontua onartu du osoko bilkuran

Udal aurrekontua onartu zuen Udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran: 17,5 milioi euro (2.900 milioi pezeta), hain justu. Kopuru horri Mizpirualde zaharren egoitzako 2.293.828 euro, Udal euskaltegiko 378.298 euro eta Bergarako Bihargintza S.A.ko 68.854 euroak gehitu behar zaizkio. Hala, udal aurrekontu osoa edo bateratua 19.560.622 eurokoa izango da. Aurrekontuak EAJ-EAren eta Batasunaren oniritziarekin onartu zituzten. Alderdi Sozialistako eta Popularreko zinegotziak ez ziren bilkuran izan.

Iazkoarekin alderatuta, aurtengo aurrekontuak %6,3 egin du gora. Era berean, inbertsioetarako bideratuko duten kopuruak ere gora egin du: iaz baino 17.958 euro gehiago inbertituko ditu aurtun Udalak.

Finantza zamari dago-kionez, iazko urtean baino zorpetze maila txikiagoari egin beharko dio aurre, 16 puntukoari, hain justu ere;

joan den urtean baino 1,20 puntu gutxiago.

BATZORDE NAGUSIAK

Udal aurrekontua batzordeka banatzeko orduan, Pertsonalak eta Zerbitzu Orokorrek hartzen dute diru gehien: lau milioi eurotik gora. Gero, Hiri-gintza, Kultura, Ingurumen eta Kirol batzordeak daude, milioia eta bi milioi euro artean. Diru gutxien jasotzen duten batzordeak Auzoak, Hezkuntza eta Euskara izango dira. /M.B.

Inbertsio nagusiak

ZERTARAKO	ZENBAT
Kirolgune berria	600.000 €
Urbanizazioa	480.000 €
Gaztetxea	420.000 €
Arostegi etxea	410.000 €
Lurrak erosteko	365.000 €
Kanposantua	180.000 €
Auzoetarako	120.000 €
Argiteria publikoa	120.000 €
Beste batzuk	1.773.208 €
GUZTIRA	4.468.208 €

OÑATI

Dantza eta malabarismo ikastaroak antolatu ditu Gaztedia batzordeak

Apirilean izango dira Gaztedia batzordeak antolatu dituen ikastaroak.

Malabarismo ikastaroa apirilaren 15etik 26ra izango da. Ikastaro horretan parte hartu gura izanez gero, apirilaren 12a baino lehen eman beharko duzue izena gaztelekuan, eta sei euro ordaindu. Apirilaren 12an bertan, batzarra egin-

go dute, egutegia eta ordu-tegia zehazteko.

Hip-hop eta *funky* dantzen ikastaroa, berriz, apirilaren 27an izango da, goizez eta arratsaldean. Apirilaren 23a baino lehen eman behar duzue izena ikastaro horretarako, eta hiru euro ordaindu. Ikastaro biak Olarako dorretxean izango dira. /AINTZANE IRIZAR



AINTZANE IRIZAR

Malabarismo ikastaroa apirilaren 15ean hasiko da.

ARETXABAleta

Fededunek, aurtun ere, Gurutze-Bidea egingo dute Izurieta auzora

Aurtun bosgarren aldia izango da fededunek Aste Santuan Gurutze-Bidea egingo dutena.

Antonio Astigarraga parrokoaren ekimenez berreskuratu zuten herrian Gurutze-Bidea egiteko ohitura. Orduetik hona, ia urtero egin izan dute; behin bakarrik utzi zuten bertan behera ekitaldia, eurria egin zuelako. Gainerakoetan herritar ugari hartu izan dute parte Izurieta elizara egin duten Gurutze-Bidean. Goizeko hamaiketan hasiko da ekitaldia, Lausitta auzoan. /AMAGOA LASAGABASTER

ESKORIATZA

Gaztetxoak izango dira protagonista nagusiak hemendik eta uda bitartean

Eskoriatzako Udalak Gazte Kantoia proiektua jarri berri du abian. 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek aisialdian ondo pasatzeko aukera berriak eman nahi dizkie Udalak. Joan den aste bukaeran egin zuten lehenengo irteera. Astunetan izan ziren, eskiatzen, eta giro paregabea izan ei zen gaztetxoaren artean.

Uztaileko udalekuak antolatzeko, bestalde, begiraleak behar ditu Kultura Sailak. Izena emateko, 16 urte beteta izan beharko dituzte gazteek. Curriculumak aurkezteko epea apirilaren 7an bukatuko da. /M.A.

ELGETA

Aste Santu ostean, Uruburun ipiniko dute GOITBko seinale zabaltzailea

Uruburuko bizilagunek Udalak GOITBko seinale zabaltzailea euren teiltuan jartzeko proposamena onartu dute. Azkenean, badirudi GOITB Elgetan ere ikusiko dugula.

Telebista dela-eta Udalen eta Goienaren arteko hitzarmena ere sinatu barik dago oraindik. Gaur 21:15ean egingo duten osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuko dute hitzarmena sinatzea. Baiezkoa esku artean, hamar egun beharko dituzte teknikariek seinale zabaltzailea jartzeko. /OXEL EROSTARBE

LEINTZ GATZAGA

'e-debagoiena' ren aurkezpenan herritarrek ere parte hartu zuten

Hango eta hemengo jende ugari batu zen *e-debagoiena* proiektuaren aurkezpenan. Herritarrek ere goizetik hurreratu ziren Gatz Museoaren ingurura, "hemen gauza handiren bat aurkeztu behar dutela eta", ziotela. Beste herritar batzuei bidea zaintzea tokatu zitzaizkien; emakumei, berriz, taloa egitea. Luntx dotorea ere izan zen, baina gonbidatuek, taloa gurago, nonbait: guztiak bukatu ziren. Eguraldia lagun, oso egun polita izan zuten herrikoek eta kanpokoek Gatzagan. /A.G.

Zabalik

MARKOS
BALENTZIAGA

Begiradia

Begirada baten inddarra, begirada baten edarra ahaztu eziñik nabill. Juan dan astian, gure arteko egunkarixetan, gogo bateko eta bestekuetan, zabal-zabalik ibilli da Steve McCurry erretratistia 1985ian hamalauzabost urteko neskatxo bati egiñ zotsan argazki-erretratua.

Zapi gorri batek leun-leun inguratutako burua erakusten dau erretratua, bekokixa hartzeraino luzetzen jakon ille-adats nahas-mahasa tartian dala. Eta erretratuaren erdi-erdixan begi bi berdek argitzen dittue neskiaren gazte-musua eta erretratua bera. Sharbat ei dau izena emakumiak eta Afganistanen eindra dago erretratua. National Geographic-ek inoiz atera daben bikaiñenen artekoa ei da.

Ez da errez ahazteko begiradia. Eta horixe gertatu bihar izen jako McCurry-ri berari be, ze berriro jua da Afganistanera bi begi haren arrastuaren atzetik; eta, ez neke barik, baña aurkittu egiñ dittu eta erretratua jaso barriro be. Bi erretratuak alkarren parian erakutsi doskuez.

Sharbat oraiñ lau haurren ama da eta burka dontsuaren illunetan gordezten dittu bere bi eguzki argitsuak. Baña burka eta bestelako buruko miñ guztiak gorabehera, begixak orduko inddarretik eta adarretik ez dotse ezer be galdu: hantxe dirautse, dizdiz egiñez, ederki ikusi leikenez.

Oraingo erretratuko begixak, baña, negar egiñ izanaren arrastua erakusten dabe, ez dauke lehenagoko aingerutasuna. Sharbaten musu-begixotan nekia eta penia ikusi leizke. Itxura horixe hartu dotsat oraingo bare begirada miñari, Afganistanen be udaberrixa hostobarritzen hasitta izengo dala akordatzen naizen bittartian.

Egunkarixotan, halako jasetasun bat zaindu nahixan edo, Sharbat Afganistango inguru urriñen batian bizi dala irakurri dot. Zeiñ inguru ote jaukak Afganistanen guk urriñekotzat ez dogunik, egitten dotsat neure kolkuari behin eta barriro.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Gaurko ogia,
biharko gosea

Joan zen astelehenean, Bergarako Udal plenoan baiezkua eman zioten PNV-EA eta PSE alderdiek, Eudelek (Euskadiko Udalerrien mankomunitateak) eta Gizartekintzak (Gipuzkako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate sailak) "proposatutako" gizarte zerbitzuen inguruko hitzarmenari. Batasuneko udal taldea abstenitu egin zen, zalantza gehiegi daudelako hitzarmen honen inguruan.

Hitzarmenak gizarte ongizate arloan eskaintzen diren programa guztiak arautzen ditu. Baina bere testuan, hirugarren adinari dagokion atala bakarrik garatzen du, gaur egun oraindik atal hori eztabaidatzen ari den arren.

Ondorioz, euren kabuz baliatu ahal diren adinduendako zerbitzuen kudeaketa, antolaketa eta finantzazioa Udalarena izango da, eta bakarrik baliatu ezin direna, berriz, Foru Aldundia arduratuko da. Hori bai, alde aurretik Aldundiak berak ezarritako prezio batean, eta alde aurretik ezarritako gehienezko ordu kopuru batetara arte. Hortik aurrera, ardura guztia udalak bereganatuko luke.

Tratu honen ondotik, bat batean Udalaren esku gelditzen dira: Ia programa komunitario guztiak (nahiz oraindik gartu gabe egon), euren kabuz baliatu ahal diren adinduendako zerbitzu guztien kudeaketa, antolaketa eta finantzazioa, eta diputa-

zioaren baremoetatik kanpo gelditzen den zenbateko guztia ere.

Dekretu honen ondorioz, ekonomikoki kaltetuak atera diren udalek 2001eko zuloaren erdia, eta 2002koaren laurdena jasoko dute. Zer gertatuko da hortik aurrea? Nork asumituko du gastu hori?

Hitzarmen honen guztiaren inguruan argi geratzen den bakarra zera da: Diputazioak bere gastu soziala mugatu nahi duela, eta herrialdeko aldaera demografikoa ikusirik konturatu dela hirugarren adinekoendako zerbitzuen kudeaketak bere gastuan gorakada nabarmena emango duela, horregatik aurkeztu du dekretua atal hori bakarrik landuta (gaizki landuta hori ere).

Eta horren aurrean udalen esku utzi dituz hainbat eta hainbat zerbitzu eta, ondorioz, hainbat eta hainbat betebeharrak eta gastu. Udalen autonomian eragin zuzena izango dutenak, eta udalek eskaini beharko lituzkeen zerbitzuak baldintzatuko dituenak, kasu askotan udalen gaitasun ekonomikoagatik hainbat zerbitzu ez eskaintzea ekarriko duena.

Zer gertatzen da gainontzeko programekin? Non dago prebentzioa edo hirugarren adina ez den gizarte zerbitzuekiko interesa? Dekretuak eta hitzarmenak soilik aipatu egiten ditu, baina ez ditu inondik inora garatzen.

Mizpirualde Egoitzaren kudeaketari buruz lortutako akordioa ez da nahikoa hainbeste zalantza sortzen duen hitzarmen bati baiezkua emateko, batez ere kontutan izaten badugu orain arteko hitzarmenak ez ditugula sinatu, eta

Gipuzkoa osoan ez direla 10 udalerrira helduko hitzarmena onartu duten herriak.

Hainbeste zalantzen artean beste bat ere gaineratu behar dugu: ze interes du Victoriano Gallastegik hitzarmen hau sinatzean, abenduko Mankomunitateko juntan aurreratu zuenean Bergarak sinatuko zuela, ongizate batzordean zalantza ugari ziren bitartean. Zalantza gehiegi baiezkua hain garbia emateko!

BERGARAKO BATASUNEN UDAL TALDEA
Bergara

Aberri Egunerako deia

Urtero lege, aurten ere Aberri Eguna gainean daukagu eta oraingo honetan ere Euskal Herriaren identitatearen ezaugarriak goratzea beharrezkoa da. Jakin bada-

kigu borrokatzen duten herriek bakarrik lortzen dutela askatasuna, beraz, Euskal Herriak estatu zapaltzaileen gainetik lanean jarraitu behar du.

Momentu zailak pasatzen ari gara une hauetan, Euskal Herriko gazteriaren illegalizazioa, presoei eta errefuxiatuei laguntzen dieten batzordeen eta ezkertiar eta abertzale den alderdi politiko orori erasoak, benetako euskal identitatea zapalduz diharduen estatu espainola, estatu frantsesaren laguntzarekin.

Batasunak, alderdi politikoa den neurrian, alderdikeriak alde batera utzi eta alderdi abertzale guztiakin ospatu nahi izan du Aberri Eguna nazio mailan, baina oraingoz ez da posible izan.

Hori guztia kontuan hartuta, Aramai-xoko Batasunak dei egiten dizue Aramai-xoko herritar guztioi datorren martxoaren 31n, Aberri Egunez, etxeetako leihoetan Ikurrina jar dezazuen. Arratsaldean Batasunak Donibane-Lohizunen egingo duen ekitaldira ere gonbidatuta zaudete.

Besterik gabe, Aberri Egun ona pasa eta agur bero bat euskal herritar guztioi.

ARAMAIXOKO BATASUNA
Aramaixo

Gazte Topagunea:
anima zaitetz!

Jakin badakigu Euskal Herriko gazte-ontzat independentzia eta sozialismoa, nahia ez ezik, beharra ere badirela. Gauza jakina da, azken erasoak direla medio, Gazte Topaguneari kontestu ezin bereziagoa suertatu zaiola. Horregatik, ezinbestekoa da milaka eta milaka gaztek, gazte mugimenduaren defentsan, independentziaren eta sozialismoaren atarkepean, Euskal Herriaren eraikuntza bidean tingo egingo dutela erakustea.

Orain arte bezala, urtero egin diren Gazte Topaguneetan, eskaintza kulturala, musikala eta bestelakoa zabala izan da eta aurtengoa ere horrelakoxea izatea espero dugu.

Pentsatu, egin eta izan! Guk, iraultzaz, independentzia. Gazte Topagunea Elorrion martxoaren 29tik apirilaren 1era bitartean. Anima zaitetz.

BERGARAKO GAZTEOK
Bergara

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Hemeroteka

Zer egiten dugu...

Zer egiten dugu euskaldunok, torturaren eragina geroago eta argiagoa denean.

Legez hainbat preso kalean egon behar denean.

Etxe inguruetako kartzeletan presoak egon behar direnean.

Gaske askoren atxiloketak ugaritzen direnean.

Txakurrak balira hainbat jende tiroz, bonbaz... hiltzen denean.

Mehatxupean hainbeste jende bizi denean.

Hainbeste alargun eta umezurtz dugunean.

Politikoen jarrera hain itsusia denean.

Konfrontazioara euskaldunok eramatera helburu denean.

Bakea ez lortzea helburua denean.

Bihar bai eta etzi ere bai betiko gauzak gertatzen direnean.

Gure seme alabak "kaos" honetan hezten dugunean.

Albora begiratu, norberaren arazoa izango ez balitz bezala egiten dugunean.

Sagardotegira joaten, geureen arteko ikusezin politikoa hain handia denean.

Teknologia, ISSO, Q... eta hainbeste ziurtagiri lortzea gizartea desegituratuta dagoenean.

Reala, Bilbo, Osasuna, Alaves, TAU, Euskaltel... denok animatzen ditugunean eta gizarte proiektu komun bat adosteko gauza ez garenean.

Geure burua besterik engainatzen ez dugunean.

(...)

INIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA
Antzuola

Kepa Urrea eta Alberto Plazaola, txapeoan

Oraingo honetan ere, zoritxarrez, euskal preso politikoei kartzeletan sufritzen dituzten etengabeko torturei erreparatu behar diegu. Josu Uribetxebarria "eperra" preso arrasatearra torturatua izan da. Funtzionarioen legetan giza eskubideek ez dute lekurik.

Egoera honen aurrean, Curtis (A Coruña) espetxean preso dauden Kepa Urrea eta Alberto Plazaolak tortura hauek salatu dituzte. Modu honetan uko egin diote patiora ateratzeari.

Gauzak horrela, beste behin ere agerian gelditu da euskal preso politikoei sufritzen duten egoera jasan ezina. Ezin gara besoak gurutzatuta gelditu. Salaketak etengabekoa behar du izan.

PRESOEN LAGUN TALDEA
Aretxabaleta

Aste Santuko oporrak direla eta, datorren astean GOIENKARIARIK ez

Datorren egubakoitzean ez duzue ez GOIENKARIARIK ezta herri aldizkaririk jasoko. Aste Santuko oporrak direla eta, ez duzue, hortaz, astekaririk jasoko etxean. Hurrengo zenbakia, apirilaren 12an jasoko duzue. Ondo pasa opor egunak.

Aberri-eguna izan arren...

Txikitan, diktaduraren pean izan arren, berez ospatzeko askorik izan ez arren, egun berezia zen Aberri-eguna etxean. Pastelak jaten genituen, eta bazkalostean, bazkaltzen genuen gelako leihoak itxita, kantatzen genuen. Horrelako egokiera baten, jakina, abestekoa zena. Gerla igarota zeukaten gurasoekin zertaz alaitu baina? Hainbeste gogorkeria, hiltze eta beharrian jasandakoekin zer ospatu? Esperantza, itxaropena zalantzarik gabe, Euskal Herria inoiz aurrera joanen zelako sentimendua.

Datorren igandean aberri-eguna ospatuko dugu ostera ere. Ni neu Donibane Garazin egoten saiatuko naiz, hainbat gauza argi utzi behar direlako, etxeko batzuek arerio politikoa akabatzen segitzen duten bitartean, eta kanpokoek inoizko erasorik bortitzenean 1936-37ko borroka latz haiek amaitu zirenetik: abertzaleak elkarrekin joanda bakarririk lortuko dugula funtsezko aurreramenturik; Euskal Herrian dauden egoera desberdinak (funtsean hiru: Mendebaldeko Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea), bere hartan kontuan hartu behar direla estrategiak pentsatzean eta egin beharrekoak erabakitzean; eta egungo egoeran metodologia militarra eta arerio politikoa akabatzea, norberari etikoki sortzen zaizkion zimiko eta larritasunetik aparte, Euskal Herria askatzearen aldeko mugimenduen kontrakoa dela. Berba laburretan, esperantza ospatzekotan noa. Eta, halaz ere, joan den asteo ostegunean Orion gertatu zen izugarrikeria gertatu eta gero ere, ostiraleko *Deia* egunkarian, Sadabak zioen legez, erratu ikaragarria da EA, EAJ eta EB PSOErekin lotu izatea orain.

PSOEek Euskal Herrian betiko legez, ezker-tiar gerraurrean, eta "ez dakit zer" gerrostean beti izan da PSOE, alegia, espainiar nazionalisten alderdi bat, inoiz ere —dialektikoki transizioaren garaian bakarririk— Euskal Herriaren autodeterminazioa onartu ez duena. Horregatik uste dut, azken hauteskondeek erakutsi legez, alde aurretik abertzaleen arteko egiunea behar dela, bakoitzak bere indarrarekin, h.d., espero izan gabe, edo EAK edo ezker abertzaleak, hegemonia lortuko dutenik. Abertzaleen arteko indarrak direnak dira, baina, era berean, elkartu beharrekoak; Ipar Irlandan, Sinn Fein eta SLDP elkartu ziren legez ingelesekin eta unionistekin elkarriketak bururatzeko.

ANDOLIN EGUZKITZA
Euskaldunon Egunkaria 2002-03-26

Edertasuna lehian

Neurri fisiko aproposak (90-60-90) dituen kazetari gazte batek dena hankaz gora jarri duen arte. Lortu zuen diru-truk (lau milioi pezeta inguru) miss titulua eta eskalo nola izendatutako gainerakoekin lehian hasi zen, Espainiako emakume ederrera izendatuko zutelakoan. (...) Kazetari lotsagabe horri esker jakin ahal izan dugu zer ezkututzen den ustez zuri eta garbi zen leihaketa barruan, noraino erabiltzen den dirua antolatzaileen patrikak betetzeko, noraino bilakatzen den diru emakume gazte askoren ametsa, nola erabiltzen dituzten gazte horiek... Gero esango dute kazetariok ez dugula ezertarako balio.

ARANTXA URREBIZKAIA
El Diario Vasco. 2002-03-25

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer iritzi duzu trafiko lege berria zorrotzagoa izateari buruz?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

sustatu.com

interneteko profesional euskaldunenendako albistegia

<http://www.sustatu.com>



Jatorria Debagoiengan du: ama Garagartzako Lete baserrikoa zuen eta aitajauna, berriz, Eskoriatzako Iturralde baserrikoa. Hala ere, Gasteizen jaio zen, "abadeak eta militarrek besterik ez zegoeanean". Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da Zuzenbidean eta aditua Ingurumen Zuzenbidean.

ENEKO AZKARATE

Oraintsu argitaratu duzue Ingurumen Zuzenbidearen gaineko liburua. Zer ekarpen egin nahi izan duzue?

Ingurumeneko Euskal Legearen azterketa zehatza egin nahi izan dugu. Ingurumena zaintzeko gaur egun dauden erremintak aztertu ditugu, eta gero, uraren, atmosferaren, hondakinen, landaretzaren, faunaren eta naturaguneen erregimen juridikoa ikertu dugu. Guztira, 800 bat orrialdeko monografikoa da. Uste dugu oso erabilgarria izan daitekeela.

Liburua Oñatin aurkeztu zenuten, ezta?

Bai, Oñatin dago Euskadiko Herri Administrazioaren Euskal Institutuaren egoitzetako bat. Horrexegatik aurkeztu genuen liburua Oñatin.

Zuk zeuk zer ekarpen egin diozu liburuari?

Edizioaren eta lantaldearen zuzendarri lanetan jardun dut. Horrez gain, kapitulu bat idatzi dut, uraren babesaren gaineko azterketari dagokiona, eta ingurumenaren interbentzioaren gaineko kapitulu ere parte hartu dut.

Nondik datorkizu ingurumen-zuzenbidearen gaineko interes berezi hori?

Frankismoaren garaian, mendia askatasun iturri zen. Orduetik hona datozkit mendizaletasuna eta ingurumenarekiko errespetua. Denboraren poderioz, sentimendu horiek arrazionalizatuz joan naiz eta, ingurumena zaintzeko moduez kezkatuta, zuzenbidearen alorra jorratu dut.

Ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko neurriak hartzen dituzte erakunde publikoak?

Ingurumenaren alde egiten du herri administrazioak, baina beharbada, ez behar bezain beste.

Gizartea bera ingurumenari egiten zaion kaltearekin nahiko arduratuta dagoela uste duzu?

Esango nuke geroago eta jende gehiago arduratzen dela ekologiaz edo ingurumenaz. Elite politikoa edo ekonomikoa, berriz, ez dago horren arduratuta. Nire ustez, hala ere, hedabide handietan eta publizitate zein marketing kanpainetan gero eta garrantzia handiagoa ematen diote ingurumenari.

Elgeako parke eolikoaren gaineko txosten juridikoa egin zenuen, ezta?

Jon Ugarte oñatiarra laguna dut, eta hark eskatuta, txosten bat egin nuen Gipuzkoako Mendi Federazioarendako. Ondorio hau atera genuen: Elgeako parke eolikoa eraikitzea legez kontrakoa zen. Txosten juridiko horretaz gain, parke eolikoaren gaineko Plan Bereziaren eta udalek emandako lizentzien aurka ere egin genuen. Epailea, baina, gure interesen aurka agertu zen eta orain, Auzitegi Gorenak dauka azken hitza. Ikusiko dugu epaileek zer dioten, baina edozein kasutan ere, gauzak txarto egin direla uste dut.

Parke eolikoak alternatiba dira?



GOIENKARIA

Iñaki Lasagabaster

EHUKO KATEDRADUNA

“Geroago eta jende gehiago arduratzen da ekologiaz. Ez, ordea, elite politikoa eta ekonomikoa”

KONTRAESANA

“Nire ustez, ez dauka zentzurik Zabalgarbi, Petronor, Zornotzako Boroa eta horrelako beste hainbat egitasmo bultzatzea eta, aldi berean, gure mendiak industrializatzea”

LETAMENDIA-URIARTE AUZIA

“Agerian geratu da hainbat indar politikoren eta hedabideren ahalegina EHU egurtzeko. Eta zer gertatuko litzateke EHUko errektorea abertzalea izan balitz?”

Ez naiz gai horretan aditua, baina nire ustez, parke eolikoek ezin dezakete nahiko energia sortu, benetako alternatiba izateko. Parke eolikoek sor dezaketen energia baino askoz ere gehiago behar dugu.

Hala ere, energia sortzeko beste modu batzuk baino garbiagoa bada.

Bai, haize errotak ekologikoagoak dira, baina hori ez da kontua. Ekologikoagoa izateagatik onartuko genuke parke eolikoa jartzea Kontxako hondartzan, Urdaibain edo

Gorbeian? Badira gauzak egiteko modu egokiagoak. Euskal Herriaren premia energetikoak zeintzuk diren aztertu beharko genuke lehenbizi, eta gero, erabaki globalak hartu. Esaterako, energia sortzea merezi duen edo erostea komenigarriagoa den; zenbat energia sortu nahi dugun eta zein modu erabilita... Nire ustez, ez dauka zentzurik Zabalgarbi, Petronor, Zornotzako Boroa eta horrelako beste hainbat egitasmo bultzatzea eta, aldi berean, gure mendiak industrializatzea.

Aipatu ditudan egitasmo horiek guztiak bultzatu gero eta abian jarriz gero, behar baino energia gehiago edukiko luke Euskal Autonomia Erkidegoak eta, horrenbestez, ez litzateke naturaguneak hondatu beharrik izango. Hortaz, nire ustez, ez dauka zentzurik gure mendietan haize errotak ipintzeak.

Zer kalte egin dio ingurumenari Elgeako parke eolikoak?

Euskal Herriko toki ederrenetakoan eraiki dute. Eta hori ez da nire ustea bakarrik. 1995ean, Aizkorriko mendilerroa natura parke izendatzeko lehen urratsak eman zituen Eusko Jaurlaritzak. Handik gutxira, izendapen hori ahaztu, eta Elgean haize errotak jartzeko baimena eman zuen. Industria eta Nekazaritza Sailak hartu zuen erabakia eta natura parke izendatu beharrean, parke eolikoa eraikitzeko baimena ematea erabaki zuen. Jakina, babestutako hegaztiak ez dituzte aintzat hartu eta ezta Lurralde Antolaketaren arauak dioena ere; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eman behar zuen haize errotak eraikitzeko baimena, eta ez Jaurlaritzak.

Karakate-Irukurutzeta mendilerroan parke eolikorik ez ipintzea erabaki berri du Jaurlaritzak. Zer deritzozu?

Erabaki egokia da. Baina erabaki horiek hartzerakoan politikoek darabilten jokabideak atentzioa ematen dit. Hasieran hogeit bat parke eoliko eraikitzea proposatzen dute, eta orain, bospasei edo eraikiko dituzte. Zelan uler daiteke hori? Txantxetan ari dira? Badirudi aurrez diseinatutako estrategia bat dela: mordo bat ipiniko dituztela iragarri, batzuk ipintzea ziurtatzeko.

Gaia aldatuz, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearendako txosten juridikoa egin zenuen. Zein ondorio atera zenuen?

Lau ondorio nagusi nabarmenduko nituzke. Lehenengoa, udalek tokian tokiko hedabideak bultzatu eta kudeatzea ia ezinezkoa dela. Bigarrena, egokia dela herri-rik ibarrerako jautzia egitea era horretako hedabideak antolatzerakoan. Hirugarrena, Debagoiena oso toki egokia dela Goiena moduko egitasmoak bultzatzeko. Laugarrena, udalen eta herri ekimenen arteko lankidetzaren egokia dela egitasmo horiek bultzatzeko, eta kontsortzioaren formula izan litekeela egokia.

Eta zein iritzi duzu Goiena moduko egitasmoen buruz?

Era horretako gizarte ekimenak beharrezkoak iruditzen zaizkit. Egitasmo hori Debagoiengan gauzatu izanak erakusten du ibar horretako jendeak dohain berezia daukala ekimen berriak bultzatzeko.

Beste kontu bat: irtenbiderik ikusten diozu euskal gatazkari?

Nire ustez, Lizarra-Garaziren izpirituari heldu beharko genioke. ETak muga bari-ko su-etena aldarrikatu beharko luke. Politika egiteko bide baketsuak erabili beharko lirateke eta desobediencia zibila ere erabili ahal izango litzateke. Horrelako egoera baten, posible izango litzateke benetako alternatiba politikoa planteatzea; nire ustez, herritarren babesa izango luke. Horretarako, estatuko indar politikoek ere parte hartu beharko lukete prozesuan. Gaur egungo egoera politikoa, hala ere, ez garamatza bide horretatik. Uste dut ezker abertzalea suizidio politikora doala. Bestalde, hainbat zinegotzi edo unibertsitateko irakasle bizi duten egoera penagarria da.

Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna zara. Zer iritzi duzu Letamendia-Uriarte auziaren gainean?

Horren gainean nahiago dut iritzirik ez ematea, Letamendiaren errekurtsioa erabaki zuen batzordeko kide izan naizelako. Baina gauza bat gura nuke esan: alegia, agerian geratu dela hainbat indar politikoren eta hedabideren ahalegina Euskal Herriko Unibertsitatea egurtzeko. Eta EHUko errektorea abertzalea izan balitz?



Aldape jatetxea

Eskaintza Iturriotz 41 / ARRASATE
943 79 70 41

- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak

- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

Igandetan itxita



Añai erretegia

Eskaintza Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Bisigua parrillan
- Legatza
- Txuleta

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

Eskaintza Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraiza
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Dukiena jatetxea

Eskaintza Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Ortzi erretegia

Eskaintza Angiozar auzoa / BERGARA
943 76 22 68

- Eguneko menua eta karta
- Ezkontza eta jaunartzeak
- Enpresa bazkariak
- 120 lagunentzako jantokia

Berezitasunak

- Bildotsa burduntzian
- Arraina eta okela parrillan

Astelehen iluntzea eta asteartetan itxita



Taberna-Berri jatetxea

Eskaintza Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Unzueta jatetxea


Eskaintza Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Eskaintza Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

- Eguneroko menua
- Ogitarakoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Goienka2a

Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren 27tik
apirilaren 12ra



**Naturaz
inguratu**



**Artelanak
ikusi**



**Elizak
bisitatu**

Hiru aukera Aste Santuan Debagoienaz gozatzeko

Aste Santuan gaude eta horrek, gehienondako, aisialdirako aukera ugari eta atsedeen hartzeko astia dakar. Opor gehienetan moduan, debagoiendar asko

herritik eta ibarretik irtengo dira. Baina beste asko hemen geratuko dira. Eta hemen, betiko ingurunean ere izango dituzte ondo pasatzeko hainbat aukera.

Aste Santua erlijio festa da, lehenik eta behin. Kristautasunak Nazareteko Jesusen azken egunak, heriotza eta piztuera gogoratzen eta ospatzen ditu egun hauetan. Jakina da Aste Santuko ospakizun ikusgarrienak guretik urruti egiten dituztela, Andaluzian, batik bat. Baina Debagoienak ere badauka bere Aste Santuko prozesioa. Hori ikusteko aukera izango dute Debagoienean gelditzea erabakitzen dutenek.

Elgetan izango da prozesio hori, Egubakoitz Santuro moduan; aurten, martxoaren 29a izango da egun hori. Elizkizun bereziak antolatuta dituzte Elgetako parrokiak. Nazareteko Jesus, Doloretako Ama Birjina eta San Juanen irudiak aterako dituzte eta kalerik kale eramango dituzte.

Goizean goiz hasiko dira Egubakoitz Santuko ospakizunak Elgetan. 09:00etan, Gurutze-Bidea egingo dute hango Jasokunde parrokian. 18:30ean, berriz, meza berezia izango da,

eta mezaren ondoren prozesioa hasiko dute. Elgetako kaleetan zehar paseatuko dituzte irudi santuak. Hiru ordu laurden eta ordubete arteko iraupena izango du prozesioak. Ekintza berezia da; izan ere, orain dela lauzpabost urte hasi zen Elgetako elizbarrutia prozesio hori antolatzen, eta ordutik hona, gero eta ezagunago egin da bertan. Ibarreko beste herrietakoek ere Debagoieneko Aste Santuko prozesio bakarra ikusteko aukera izango dute, bada, aurten ere.

Aste Santuaren erlijio kutsua bizi gura dutenek badituzte, ordea, horretarako aukera gehiago. Esan bezala, Debagoienean ez da bestelako ekitaldi berezirik izango egunotan, baina opor hauen erlijio izaera ondo datorrigu gure ibarreko elizak bisitatzeko; horretan, arte adierazpen gehienetan moduan, aberatsa dugu Debagoiena. Hortaz, Arantzazuko basilikatik hasita, ibarrean sakabanatuta dauden basiliza, santutegi txiki

eta hainbat arte estilotako elizak ikus ditzakegu; beharbada, lehenengoz ikusteko, edo gure inguruan dugun ondarea berriro ere deskubritzeko.

Edozelan ere, Aste Santuak opor egunak dira. Hori dela eta, bestelako aisialdi aukerak ere hortxe izango ditugu, esku-eskura. Udaberria gurean dugula dagoeneko eta egun eguzkitsua gero eta ugariagoak direla aprobetxatuta, gure ibarreko natura paregabeaz gozatea aukera dezakegu; horretarako, Debagoieneko turismo ekintzaileek prestatutako proposamenak jarrai ditzakegu, edo dauden argitalpen ugarietatik bakan batzuk hartuta, urte osoan barrena begi-bistan dugun ingurumen ederra gure kabuz esploratzera irten. Natura baino gehiago, herria eta kaleak mirestea gustukoago badugu, orduan ere izango da zer egin eta zer ikusi; izan ere, sekula ez da une txarra Debagoieneko arte ondareaz ohartzeko. /LEIRE KORTABARRIA

AISIALDIA/ ASTE SANTUKO OPORRAK, DEBAGOIENEAN

Debagoiena berraurkitzeko aukera

ASTE SANTUETAKO OPORREK GURE INGURUKO ALTXOR NATURAL ETA HISTORIKOAK BEHATZEKO AUKERA EMATEN DIGUTE

Aste Santuko opor luzeotan, urtero bezala, hainbat debagoiendar ibarretik irtengo dira eta guretik kanpo turismoa egiteko, hondartzara joateko... aprobeztatuko dute. Baina beste asko hemen geratuko dira, eta horiek ere, lekutik larregi mugitu barik, izango dute ondo pasatzeko modua.

Sarritan entzuten dugu Debagoiena ibar aberatsa dela ondare aldetik, denetarik zerbait duela: ingurune natural paregabea, gertakizun interesgarriak betetako historia -batzuetan, herrietako jaiek horren testigantza jasotzen dute: adibidez, Antzuolako Alardearen kasuan; bestetan, herrien egitura edo eraikinetan islatzen da...-, mendeetan zehar zutik izan diren arkitektura altxorak... Baina urtean barrena, eguneroko bizitzak aski lanpetuta edukitzen gaitu, eta ezin izaten dugu geure ingurune hori behatu.

GEU ERE, GURE HERRIAN TURISTA

Aste Santuan, gure ibarrean turista bihurtzeko aukera dugu, egun horiek gurera etortzea aukeratzeko duten hainbat eta hainbat kanpotarrek egiten duten bezala. Gakoa izango da Debagoienari beste begi batzuekin so egitea, eta urte osoan inguruan ditugun altxorretaz ondo jabetzea.

Debagoieneko herri bakoitzak bere nortasuna du, baita jatorrian ere. Adibidez, Leintz Gatzaga, XIV. mendean sortua, gatzaren esplotazioari lotua izan da, eta



Frantziskotarrek 500 urte egin dituztela eta Arantzazun, aitzakia dugu santutegia bisitatzeko.

ANTTON ELIZEGI

horren testigantza gordetzen du gaur egungo Gatz Museo interesgarriak. Arrasaten, bestalde, XIII. mendetik aurrerako gertakizunen aztarnak behatu ahal izango ditugu, sasoi horretakoa da eta Mondrago herria. Erdi Aroko gune interesgarria gordetzen du baita Elgetak ere, Zuloaga margolariaren txoko kuttunak.

ESKORIATZAN ETA ARETXABALETAN

Eskoriatzara joanez gero, Museo Etnografikoa aurkituko dugu, martitzenetik domekara zabalik. Eta Debagoieneko gaur egungo ondarea hobeto ezagutu gura badugu, kooperatibismoa albo batera utzi ezinezko erreferentzia da. Kooperatibismoaren sortzailetariko baten, on Jose Maria

Arizmendiarraren, gela-museo guztiz eraberritua bisitatu ahal izango dugu Aretxabaletan, gure ibarrean hain esanguratsu izan den sistemaren oinarria miatuz.

Badago hamaika aukera, bada, Debagoiengan gauza berriak aurkitzeko, irudimena erabiliz gero.

LEIRE KORTABARRIA

Aizkorri eta Udalatx

Joan den otsailean Jaurkeztu zuten, Gipuzkoa Zein Berdea turismo ekintzaren barruan, *Natura eta Landa Guneak* liburuxka eta egitasmo horren logotipoa. Debagoiena Urola Erdia, Tolosaldea, Urola Garaia eta Goierri eskualdeekin batera dago



egitasmo horretan, Gipuzkoa barnealdeko turismoa bultzatzeko helburuarekin, eta Gipuzkoa Zein Berdea da egitasmorako aukeratutako izena.

Kanpotik datozenendako ez ezik, gureta ere baliagarri izan daiteke *Natura eta Landa Guneak* liburua; izan ere, Aizkorri parke naturala eta Udalatx naturaguneaz azalpenak ematen dizkigute, besteak beste.

Ez da hori Debagoieneko ondarea arakatzen duen liburu bakarra. Durangoko azken azokan aurkeztu zuen Urdin Elortza kazetariak *Oñati, oinez* liburua, sei mendi ibilbiderekin.

NATURAZ GOZATZEKO AUKERA

Ordu pare bateko ibilbide ederrak

Aste Santuko opor egunak une aproposa izan daitezke, adibidez, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Ekimen Zentroak prestatutako ibilbideak egiteko. Horiatarako eskuliburuak turismo bulegoetan eskura ditzakezue, eta guztietan hala guztietan, gure ibarreko hainbat txoko hobeto ezagutzeko argibideak eta aholkuak ematen dizkigute. Ibilbide horiek aukerakoak dira, egun pasa egin barik, irtenalditxo bat egiteko asmoa baldin badugu; izan ere, gehienak bizpahiru orduetan egiteko modukoak dira. Adibidez, Intxortatik Asentziara bi orduko ibilbidetxo egin dezakegu; edo, ordu bat gehiago hartuz gero, Bolibarko eliza aurretik bueltatxo bat eman. Udala, Hiruerreketa, Urkulu... dira beste aukera batzuk.

Paseotxo horiek atsedendaldi batekin bukatzeko edo, beste barik, ibiltzeko gogo handirik ez badugu, ibarreko aisialdi eta atsedeen guneren baten gera gaitzake: Astaburun edo Iturriberrin (Bergaran), Azalditan, Kostarrazun edo Trekutzen (Antzuolan), Iturritxuetan, Bengoerreketan edo Pagoederren (Gatzagan)...

GURE HERRIAK HOBETO EZAGUTZEKO

Egoitza historikoz jositako herriak

Gure ibarreko herriak eurak arte eta historia gordailu txiki paregabeak dira. Euren kale eta plazetatik bueltan, bertako historiaren berri jaso dezakegu eta mendeetan zehar hemen jazo diren gertaerak biziberrituta agertuko zaizkigu.

Oñatin arte zibil eta erlijiosoaren eredu paregabeak daude, eta Bergaran XVI. eta XVII. mendeko hainbat jauregi ikusgarri. Erdi Arora salto egiteko, Arrasateko edo Leintz Gatzagako egiturari erreparatzea baino ez dago; bietan hala bietan, dotorezia handiko antzinako egoitzak ikus ditzakegu, hala nola: Bañez Artazubiaga, Okendo edo Monterron jauregiak, Arrasaten; edo Garro, Elexalde edo Soran jauregiak, Gatzagan. Aretxabaletan Arratabe eta Otalora jauregiak edo udaletxe zaharra miretsi ahal izango ditugu; Antzuolan, XVIII. mendeko multzo barrokoa...

Herrien egiturak berak hitz egiten digu antzinako garaien inguruan. Horrela, adibidez, Arrasate edo Leintz Gatzagako Erdi Aroko egiturari erreparatu ahal izango diogu, eta mendeetan atzera egin.

ERLIJIOAREN AZTARNAK MIATZEKO

Ermitak, parrokiak, santutegiak...

Ezin dugu ahaztu Aste Santua erlijio jaia dela. Debagoiengan Aste Santuko prozesio bakarria egiten da, Elgetakoa. Hala ere, Euskal Herrian erlijioak izan duen zeresan handiaren aztarnak ikusteko beste modurik ere badago, ospakizunetan parte hartu barik. Arantzazun, adibidez, naturak eta erlijioak bat egiten dute modu paregabean. Hori gutxi balitz, laster berrituta izango dira inguru haiek, eta aisialdirako gune bihurtuko dira. Bestalde, han dago ikusgai frantziskotarrak Arantzazun finkatu zireneko 500. urtemugako erakusketa, irailera arte. Eta badaia hori aitzakia hartuta, Arantzazuko ingurune zoragarriaz gozatu ahal izango dugu, Aizkorriko parke naturala, Duruko ingurunea edo Araotz auzoa bisitatu ta.

Baina erlijioak denetariko aztarnak utzi ditugun: basilika handiak, baina baita hainbat estiloko hamaika parrokia ere -Debagoieneko herri guztietan-, Leintz Gatzagako Dorletako santutegia edo ermitak: Euskal Herri osoan, ibarrean daude ermita gehien.

ALDIZKARIAK/ 'JAKINGARRIAK' HEZKUNTZA ARGITALPENAREN ZENBAKI BERRIA

NIREAUKERA

Musikaren lekua hezkuntzan

HUHEZIK KALERATZEN DUEN 'JAKINGARRIAK' ALDIZKARIAK ITXURA ALDATU BERRI DU

Aurpegi aldaketa egin du *Jakingarriak* Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak, HUHEZIK, argitaratzen duen aldizkariak. 46. zenbakia egin du, eta diseinuz aldatuta etorri da orainoan. Bestalde, musikak hezkuntzan duen pisuari eskaini diote monografikoa.

Atalak lehengo berberak dira, baina itxura aldatu da. *Jakingarriak* aldizkariako arduradunek, HUHEZIKo irakasle talde batek, itxura erakargarriagoa eman gura zioten aldizkariari, eta lortu dute. Maddi Trutxuelo diseinatzaile andoaindarrak egin dio aurpegi aldaketa HUHEZIKren aldizkariari.

MUSIKA ETA UMEEN HEZKUNTZA

Eduki aldetik, ordea, lehengo atal berberei eusten die *Jakingarriak*ek. Gai baten inguruko artikulua dira orain ere aldizkariaren atal sendoena.

Musika haurren garapenean, horra hor monografikoaren gaia. Jose Ramon Vitoria musikagile eta irakasle arrasatearrak koordinatu du monografikoa; gai horretan zeresan handia du Vitoriak, urteak daramatza eta adimen urritasunak dituzten ume eta gaztetxoei Aschero sistemaren bidez musika irakasten.

Editoreek lau adituren artikulua bana bildu dute gai horren inguruan. Iñaki Mangana, Maravillas Diaz, Fernando Palacios eta Patxi del Campo izan dira artikulugileak oraino honetan. Eta, honako ikuspegiak aukeratu



Musikak umeen hezkuntzan duen garrantzia aztertu du orainoan HUHEZIKren aldizkariak.

dituzte gai sakontzeko: musika eta garapen sozio-pertsonala; musikaterapia; ipuinak eta musika; eta abestiak.

"GEHIAGO MEREZI DU MUSIKAK"

Musikak umeen hezkuntzari mesede handia egin diezaiokeen arren, ez dago behar bezain errekonozitua gaur egun, aditu horien guztien ustez. Jose Ramon Vitoria irakasleak hezkuntzaren erre-

formak musika eskola orduen murrizketa ekarri izana kritikatu zuen. Nerea Alzola aldizkariaren zuzendariak dioenez, "musikak pisu handia du umearen garapen intelektual, afektibo, sozial eta artistikoan, eta Euskal Herria, bereziki, oso herri musikazalea izan da; musikak dedikazio handiagoa merezi du". Gaia hain garrantzitsua izanda, 47. zenbakia ere horri eskainiko diote.

LIBURUAK, ARTIKULUAK...

Gainerako atalak ere ohikoak dira. Atal baten, hainbat liburu interesgarri komentatzen dira; beste baten, Alzolak aukeratutako eta komentatutako artikulua aipagarriak eskaintzen dizkigute. Baliabideei eskaintako atalean, ume txikiendako irakurketa gida dakar.

LEIRE KORTABARRIA



'HUAPANGO' Hainbat egile

Aretxabaletako Andramari jaietan salgai ipini zuten disko bat gomen datu gurako nuke: Huapango. Hainbat lagun artean egindako lana da: Mariatxen Urkia, Ramon Beloki, Arkaitz Bengoetxea, Abel Terona, Jon Oartzun, Andoni Galindo, Unai Frantzesena... Lagun horiek prestatu eta ateratako diskoa da. Neuk iaz erosi nuen, plazarik plaza saltzen ibili zirenean; ez dakit dendetan salgai izango den, baina baldin badago, gomen datu egiten diot edonori. Hamabi rantxera abesten eta jotzen dituzte, eta oso disko martxosoa eta alai da. Jaietarako aproposa da, giro polita sortzen du-eta. /L.K.




Idoia Elexpuru

Margolari aretxabaletarra. Bergarako zezen zaleen lehian parte hartuko du.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Meteorologia




EGURALDIA

Gaiak
Gaiak argitaldaria
207 orrialde

Bilduma bateko beste liburu bat da "Eguraldia" izeneko. Oinarriko liburutegi moduan du izendatua Gaia argitaldaria. *Euskaldunen herri-jakindurietatik meteorologia ikerkuntzara* izan zitekeen titulu zehatzagoa, beharbada.

Egungo zientzia honen inguruko gairik interesgarrienak aztertzen dira eta, horrekin batera, Euskal Herriaren mikroklimak, klimaren gaineko euskal iragarleak... eta meteorologiaz bertako euskal hiztegia ere badakar. Beharbada, azken honek ematen dio berezitasuna eta eskoletarako erabiltzeko modukoa egin.

LIBURUA / Enologia




EUSKAL HERRIKO ARDOAK

Mikel Garaizabal
Ardoxka gastronomia elkartea
108 orrialde

Ardoa modan dago, prestigioa ematen du ardoaren gainean berba egiteak eta jakitun izateak. Eta hori horrela bada, euskaldunok ezin gaitezke atzean geratu, Mikel Garaizabal elorrioarrak dioenez. Ardoaren gaineko jakituria batzen saiatu da eta, horrela, gai honen inguruan euskaraz idazten den lehenengo liburua ateratu du. Garaizabalek helburuak bete ditu: ardoari eta enologiari buruzko terminologia argitaratzea izan da asmoa; bestalde, Euskal Herriko jatorri deiturak zenbatzea eta baita ardoaren kultura aberatsa zabaltzea ere.

DISKOA / Kantautorea



GAUA BASAMORTUAN

Markos Untzeta
Gaztelupeko hotsak
10 kantu

Beste kantari arrunt bat ez izateko apustua egin du Markos Untzetak. Estudioan zenbait ikutu hartu eta gero disko bihurtu dira hilabeteetan eginda zeuden kantuak. Untzetak alegiazko batasun irizpide batez osatu du bere estraineko lana: Bidaia. Ibilbidea "Pigalle"-n hasten da, Pariseko kaleetan bizitako sexu eta alkohol mistizismoa Jon Mirande madarikatu ezagunaren poema baten eskutik. Kantu mingarri honetan, "I want you"ren urrutiko oihartzuna iristen zaigu. Edo beste Dylan batena, guztiak miresten ditu Markos Untzeta dylandarrak.

Mar.: 27-Api.: 12

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Ipuin kontaketa saioa egingo du Virginia Imazek** apirilaren 9an, martitzenean. 5 eta 8 urte bitartekoei zuzendutako ekintza da. Santa Marinako liburutegian izango da 17:00etan, eta Monterronen, 18:30ean.

MUSIKA

BERGARA

► **Audience talde gernikarrak eta Miztura talde donostiarrak** kontzertua eskainiko dute eguaztenean, hilaren 27an, gaztetxean, 22:30ean. Audience-k bere disko berria aurkeztuko du.

► **Baalphegor (Girona), Numen (Arrasate) eta Suffering Down (Bilbo) taldeek** brutal death, black metal eta black death kontzertua eskainiko dute hilaren 27an, eguaztenean, gaztetxean, 22:30ean.

ELGETA

► **Prut 69 Ourenseko taldeak eta Garrasika talde nafarrak** kontzertua eskainiko dute eguaztenean, hilaren 27an, gaztetxean, 23:00etan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Aste Santuko elizkizun bereziak** izango dira baserri auzoetan. Eguen Santuan, Mendiolan 17:30ean eta Azatzan 18:30ean esango da meza; Egubakoitz Santuan, Barkamenaren ospakizunak egingo dituzte, Mendiolan 11:00etan eta Azatzan 12:00etan. Pazko Domekan, uraren bedeinkapena ohiko meza orduetan egingo dute.

ARRASATE

► **Energia berriztagarri ikastaroa** egiteko aukera dago. Lau modulutan banatuko da, eta 20 lagun onartuko dituzte moduluko. Apiriletik aurrera izango da. Izena emateko, deitu 679 69 33 18 edo 943 71 54 53 telefono zenbakietara.

ELGETA

► **Elikadura eta osasunaren inguruko informazio jardunaldia** antolatu du Kutxak. Apirilaren 12an izango da, egubakoitzean, Oskarbi elkartearen egoitzan, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

► **Imersok bainuetxe programa antolatu du** irailetik abendura bitartean, eta izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 16ra arte. Argibideetarako edo izena emateko, udaleko gizarte langilearengana jo beharko duzue.

OÑATI

► **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketen gaineko hitzaldiak** egingo ditu Beatriz Etxeberriak Txantxiku ikastolan. DBHko 4. mailako ikasleen aita-amei zuzendutako ekintza da. Apirilaren 9an, A taldekoen gurasoendako izango da; 10ean, B taldekoendako; eta 16an, D taldekoendako.

► **Atzerrian egonaldiak eta ingelesa eta frantsesa ikasteko hainbat programa** antolatu ditu Txantxiku ikastolak. Ekintzok udan izango dira, baina izena emateko epea apirilaren 12an bukatuko da. Argibideetarako, deitu 943 78 12 04 telefono zenbakira.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Argazki-matematika lehiaketa** antolatu du Arrasateko Institutuak, bere 25. urteurrena dela-eta. Lehiaketaren oinarriak Institutuan bertan edo Monterronen jaso ahal izango dituzue.

BERGARA

► **XVII. Koldo Eleizalde literatura lehiaketa** antolatu du udalak. Bergaran jaiio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Ipuinak edo olerkiak bidal daitezke. Argibide gehiagorako, jo Bergarako udaleko euskara zerbitzura.

EIBAR

► **Gazteen XVII. Eibarko Hiria Ipuin Lehiaketa** antolatu du Udalak. 14tik 25 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Argibideetarako, deitu 943 70 71 53 edo 943 20 68 45 telefonoetara.

EUSKAL HERRIA

► **Erein, Euskadiko Kutxa eta Donostia Opera Prima** narratiba sariak antolatu ditu Erein argitaletxeak. Euskaraz idatzitako lanak bakarrik onartuko dituzte, 100 orrikoak gutxienez. Ezizen sistemaz sinatutako lau kopia bidali behar dira honako helbidera, urte bukaera baino lehen: Erein, Tolosa Etorbidea 107, 20018 Donostia.

► **Kimetz Emakumeen Kultura eta Gizarte Taldeak VIII. kontakizun**

lehiaketa antolatu du. Bost eta hamar orri arteko ipuinak onartuko dituzte. Apirilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituzue lanok honako helbidera: Barrena Kultura Etxea, Nikolas Lekuona enparantza z/g, Ordizia.

► **Esaera zaharren IX. txapelketa** antolatu dute Nikola euskaltegiak eta Sopolako AEK-k. Apirilaren 27an izango da. Parte hartzaileak bi, hiru edo lau laguneko taldetan aurkeztu beharko dira. Izena emateko mugaeguna apirilaren 22a izango da. Argibideetarako, deitu 94 676 48 76 telefonora.

GIPUZKOA

► **2002ko Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen saria** antolatu dute, bi helbururekin: musikari buruzko ikerketa piztea eta sustatzea; eta musikaren sorkuntzaren alorrean nabarmendu diren egile handien ibilbidea eta lana modu publikoan goraiatzeko. Irabazleak 3000 euro eskuratuko ditu. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 12 22 39 edo 943 01 85 08 telefonoetara.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Javier Juarros** margolari bilbotarren olio, pastel eta akuarela erakusketa ikusteko aukera dago Masterrekako Nahikari tabernan.

OÑATI

► **Basoen baso** erakusketa antolatu du natura eskolak. Olakuako egoitzan izango da, apirilaren 28ra arte, honako egun eta orduetan: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara. Taldekako bisitetarako, aldeztu aurretik hartu behar da txanda, 943 71 64 04 telefonon. ► **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izeneko erakusketa zabalik dago, irailaren 9ra arte, Arantzazuko santutegian. 11:00etatik 18:00etara dago bisitatzeko aukera. Argibide gehiagorako, jo honako internet gunera: www.arantzazu.org.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Konpas eta Kaxa Flamenkoko perkusio ikastaroa** antolatu du Iñaki Bruñak. Apirilaren 15ean, 22an eta 29an eta maiatzaren 6an eta 13an izango dira eskolak, 18:00etatik 20:30era. Angel López izango da irakaslea. Matrikularen prezioa 21 eurokoa da. Informazio gehiagorako, deitu 943 79 80 25 telefonora (Iñaki).

BERGARA

► **Zaharberritze ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak**, apirilaren 22tik maiatzaren 30era bitartean, astelehen eta eguenero, 19:00etatik 21:30era, kartzela zaharrean. Izena emateko epea apirilaren 6tik 17ra izango da. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 60. Matrikulatzeko, joan Jardunen egoitzara, kultura etxean. ► **Zortzi eta hamalau urte arteko ume eta gaztetxoendako antzerki ikastaroa** antolatu du Virago antzerki taldeak, apirilaren 6tik ekainaren 22ra arte. Izena emateko, jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 telefonora. ► **Langabeendako Argiketari Industrial** ikastaroa antolatu du udalak. Parte hartzeko baldintzak: adinez nagusia eta langabea izatea. Argibideetarako, jo Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzura.

EUSKAL HERRIA

► **Nekazaritza arloko etengabeko heziketa ikastaroak** antolatu ditu Mendikoik, Eusko Jauriritzako Heziketa, Sustapen eta Landa Garapenerako Sailak. Argibide gehiagorako, deitu 945 41 03 03 telefonora.



► JAIK

ABERRI EGUN BATERATUA OSPATUKO DA ARETXABALETAN

Aurten ere, Aherri Eguna bateratua ospatuko dute Aretxabaletan martxoaren 31n. Horretarako, honako egitaraua antolatu dute: 11:00etan, etxalero jaurtiketa; 11:45ean, txalaparta emanaldia; 12:00etan, meza nagusia; 13:00etan, berriro ere txalaparta emanaldi bat. Segidan, ekitaldi garrantzitsuenetarikoa bat izango da, hots, ikurrinarekin kalejira, udaletxetik udaletxe zaharerraino; behin hara helduta, ikurrinari agurra egingo diote. 13:30ean, ikurrina balkoian ipiniko dute, eta bertso emanaldiaren ondoren, adierazpen bat irakurriko dute. 14:30ean, bazkaria izango da, Makitua tabernan.

Non: Aretxabaletan. **Noiz:** Martxoaren 31n, domekan. **Ordua:** 09:30etik aurrera.

AIPAGARRI

Izaro Aperribai

BERGARA


Martxoaren 18tik 22ra arteko astean, ETBko bigarren kateko *Date el bote* lehiaketan ikusi irabazi ez zuen arren, sorpresa galanta eman zigun egubakoitzean; izan ere, aste osoko potea eskuratu zuen, gainerako 9 lehiakideei aurrea hartu ondoren.



Fran Miguel

ARETXABALETA

Martxoaren 17an Durangon jokatuak Nazioarteko Xake Txapelketan bigarren sailkatu zen Fran Miguel. Esteban Romero eta Aitor Alcaide aretxabaletarrek ere hantxe izan ziren. Baita Errusia eta Bulgariako bederatzai maisu ere. Oleg Korneiev errusiarren atzetik sailkatu zen Fran.



Blanca Roncal

MONDRAGOE

SE-EEko exekutibako kideetako bat da Blanca Roncal, joan zen astean alderdi horrek egin zuen kongresuaren ondoren. Patxi López idazkari nagusiaren taldeko kide izango da aurrerantzean. Blanca Gasteizen bizi den arren, Mondragoeko zinegotzia da, eta baita legebiltzarkidea ere.



JAIOTAKOAK

- Naiara Olalde Zufiria. Oñatin, martxoaren 19an.
- Iker Ugarte Gabilondo. Bergaran, martxoaren 14an.
- Unai Irizar Frago. Bergaran, martxoaren 18an.
- Uxue Casado Lozano. Arrasaten, martxoaren 21ean.
- Ibon Lorenzo Millán. Gatzagan, martxoaren 22an.

HILDAKOAK

- Joaquín Urkizu Beitia. Bergaran, martxoaren 19an. 62 urte.
- Maria Teresa Abarrategi Eraña. Arrasaten, 21ean. 73 urte.
- Emilia Pérez de Arenaza. Arrasaten, martxoaren 23an. 83 urte.
- Asunción Idarreta Sañudo. Bergaran, martxoaren 24an. 87 urte.
- Joseba Elkorro Ojangueren. Aretxabaletan, 24an. 27 urte.
- Valentín Ugalde Larrañaga. Bergaran, martxoaren 25ean. 94 urte.
- Mari Pili Jiménez Benito. Arrasaten, martxoaren 25ean. 34 urte.



Naiara Olalde Zufiria eta Josune ama, oñatiarrak. Naiara martxoaren 19an jaio zen, eta 3,850 kilo pisatu zuen. Mikel da aita, oñatiarra hura ere.



Uxue Casado Lozano mondragoetarra, Sonia ama eta Itxaro lagunarekin. Martxoaren 18an jaio zen, eta 3,160 kilo pisatu zuen. Kaisu da aita, mondragoetarra.



Leire Urkia Basterra oñatiarra eta Luisa ama, bergararra. Martxoaren 21ean jaio zen Leire, eta 3,600 kilo pisatu zuen. Iñigo da aita, oñatiarra.



Iker Pérez Gaztañaga aretxabaletarra Alex eta Ane gurasoekin. Joan zen egubakoitzean, martxoaren 22an jaio zen Iker, eta 3,650 kilo pisatu zuen.



Malen Urkia García aretxabaletarra Juana amarekin. Martxoaren 23an jaio zen Malen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. Iñazio eta Mari Karmen dira gurasoak.



Iria Fernández Fernández mondragoetarra gurasoekin. Lino da aita, mondragoetarra, eta Elena ama, Avilakoa. Martxoaren 24an jaio zen, eta 2,810 kilo pisatu zuen.

URTEURRENA

Raul Hernández Maiztegi
"Piru"

Apirilaren 13an, eguerdiko ordu batean bere errautsak Besaiden botako dira.



Bere lagunek eta senitartekoek gura duzuen guztioi etortzeko gonbidapena egiten dizuegu.

URTEURRENA

Pedro Mari De Diego Martínez

Aretxabaletan hil zen 2001eko martxoaren 31an, 34 urte zituela.

Zure lagunok ez zaitugu ahaztuko




Hiruhaitz Peña

II. URTEURRENA

Imanol Ormaetxea Trojaola

2000ko apirilaren 1ean hil zen. Elizkizunak 2002ko martxoaren 31an, domeka, 12:00tan Arrasateko Gesalibar auzoko elizan.

Zurekin bizi izan ginenok eta beti zure ondoan izan ginenok zu maitatzen jarraituko dugu, ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Mari De Diego Martínez



2001ko martxoaren 31n hil ziren, moto istripuz Gasteizen.

"Nahiz eta urruti egon, beti izango zaituztegu gure bihotzean"

Meza

Martxoaren 31n, 11:00etan Aretxabaletako parrokian

ZUEN LAGUNAK

Jose eta Gra, Julio eta Esti, Jesus, Jorge, Javi eta Marijo, Jon eta Susi.



Nerea Kortabarria Amores

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez Goienkariaren ordezkarietako batera.

Goienkaria

Astero 21.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 60 €.



Atzeskua

MAIDER OSA

Chieko Hata/Japoniar euskaldundua

Euskal Herria ala Japonia? Txikitatik leku askotan bizi izan naiz, aitaren lan aldaketengatik. Ohituta nago leku aldaketetara. Horregatik, Euskadin eroso sentitzen naiz, eta Japonian ere bai. **Zergatik erabaki zenuen zure jaioterria utzi eta Euskal Herrira etortzea?**

Ni hona etorri aurretik Thailandiara joan nintzen beste ikusmolde batzuk

ezagutu eta unibertitate batean japoniera irakastera. Thailandiako bizitza niretako kolpe handia izan zen. Hango jendearen pentsatzeko modua, lan egiteko era... desberdinak ziren. Thailandiara joan aurretik senarra ezagutu nuen, eta hark lana Euskal Herrian egin gura zuenez, hona etorri ginen duela bederatzi urte.

Japoniako telebistan albistegietako aurkezle ibili izan zara urte luzez.

Nik telebista eta irrati enpresa pribatu baten egiten nuen lan. Han 12 urtez albiste eta elkarrizketa saioetako aurkezle izan nintzen. Hango telebisten artean lehia handia dago.

Ez zaizu burutik pasatu curriculuma Goiena Telebistara bidaltzea?

Ez, zuek ni baino hobeak zarete. Hemen ez daukat zer eginik.

Beharbada, nik bidaliko dut GoiHata, zuen enpresara. Entzun dudanez, lanez gainezka zabilzate, eta aurtan Bilboko azokan ere izan zarete, gainera.

Bai. Bilboko azokara joan gara gure itzulpenak egin eta Japoniarekin zerikusia daukaten enpresei gure zerbitzuak eskaintzera. Nahiko pozik etorri gara. Ingelesa eta hizkuntzak dakitenen beharra ere badaukagu. Zuk, bota zure curriculuma.

Zuri, euskaraz berba egiten ikastea ez zaizu askorik kostatu, ezta?

Euskara da nire bosgarren hizkuntza. Hizkuntzak ikasteko erraztasuna daukadala uste dut. Hona etorri nintzenean, ez nekien gaztelaniaz, ezta euskaraz ere. Lehenengo, gaztelania ikasi nuen Arrasateko akademia baten, eta gero AEKn eta Udal Euskaltegian euskara ikasi nuen. Duela bi urte, Lazkaoko barnetegian ere izan nintzen hilabetez.

Beharbada, euskara ikasteko metodologia onena mutil-lagun euskalduna aurkitzea izango da...

Badirudi lagun batekin ikastea metodologia onena dela. Senarrak japonieraz ondo berba egiten du, eta nik euskaraz galdetzen diodanean ere japonieraz erantzuten dit. Aitagarrebari eskerrak eman behar dizkiot, hemengo euskara irakasten didalako.



“Euskara da nire bosgarren hizkuntza. Hizkuntzak ikasteko erraztasuna daukadala uste dut”

“Euskadin eroso sentitzen naiz, eta Japonian ere bai”

“Japonian lehia handia dago telebisten artean”

► Japoniarra / 47 urte / Itzultzailea

PIPERRAUTSA

Patxi

Eskerrak pasatu den Euskaltelen iragarki famatuaren bolada.

Gaur izenburua irakurtzen duenak samurrago pentsa lezake euskal sozialisten idazkari berriaz dela. Eta zuzen ariko da.

Tentsiopean sartu ziren sozialistak batzarrean, Orioko hilketaren ondoren. Eta ezin esan tentsio barik irten direnik.

Patxi Lópezek gaintu egin du Totorica eta honek ez du onartu zuzendaritza berrian sartzerik.

Hala ere, talde berriak onarpen dezentea jaso du, aspaldian inork izan duen zabalena.

Ez nau harritu Totoricak galdu izanak. Hark irabazi izan balu, zertarako kendu Redondo?

Harrigarriagoa egin zait Gemma Zabaletaren indar eskasa. Pena hartu dut, hura zen, nire ustez, hautagai onena.

Urrun ditugu oraindik Catalunya eta Maragall.

Maiatzaren 13ko porrotaren ondorioz iritsi da Patxi López idazkaritzara.

Horrenbestez, sozialistek amaitu dute orduan hasitako gurutze-bidea.

Eta orain bidegurutzean daude, haiek eta beste asko.

MIKEL IRIZAR

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA: Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
 BAINU ERAKUSKETA: Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
 ARRASATE

FAGOR

